

Louis Dassance

(1888-1976)

J. SAN MARTIN

Ipar Euskal Herrian instituzio bat zen Louis Dassance jauna, gure mende honen lehen partetik honerat mugazandiko Euskal Herrian euskara eta euskal kulturaren inguru izan diren mugimenduen eragilerik zintzoenetakoa, ekintza guzietan aurrenengo agertuaz.

Pilotazale bikaina. Frantziako pilota federazioaren sortzaileetako bat zen eta errebote jokoaren legeak jarri zituen. L. Bombin eta R. Bozas-Urrutiaren “El gran libro de la Pelota”-ren lehen tomoan ikus geneza bere lan bat errebotean erabiltzen diren legeri buruzkoa, J. Elissaldekin batean egina. Eta pilotaz ari delarik ere ezin ahaztu bere barnean zeraman euskaltzaleatasuna; lanaren bukaeran hara zer zion: “Euskara ongi da liburuetan... mila aldiz hobeago euskaldun plazetan!!!”.

Ogibidez laborari injinerua zen, Paris-ko Institut National Agronomique delakoan estudiantua, eta laborarien eta herritarren interseri haina atxikia zen euskal kulturari.

Euskaltzale andana batekin “Gure Herria”ren sortzaileetakoa izan zen 1921ean. Urte berean sortu zuten “Eskualzaleen Biltzarra” eta 1925ean Jean Etchepare medikuaren ordezkari zuten buru eta 32 urtez iraun zuen elkargo horren buruzagitza. Behar bada denbora horretan izan ziren elkargo horren egunik ederrenak, bazkiderik anitz lortuaz, gazte arteko euskal sariketak sortuaz, teatrolariak, bertsolariak eta abar. 1944an “Herria” sortu zenetik bere laguntzailerik kartsuenetako bat izan zen eta bere

azken egunak arte kolaboratzen jarraitu zuena. "Gure Almanaka"n ere orrialde ederrik eskaini zigun.

1949an euskaltzain oso izendatua izan zen. Bere sarrera hitzaldia Donostiako Diputazio jauregian egin nahi zen, baina azken orduan debekatua izan zenez, geroago Baionan egin beharra izan zuen. Oraindik ez dakigu zer zen onartzen ez zena, euskaltzaina ala bere "Legion d'Honneur" izatea, zeren orotan bere zerbitzuak zintzo eskaini zituen Dassance jauna Frantsiak ohorez ematen duen titulurik handienan jabe bai zen.

Louis Dassance Lapurdiko Uztaritzen sortu zen 1888ko abuztuaren 20an, eta bere jaioterrian hil da 1976ko apirilaren 14an.

Euskaltzaindiaren batzarrean Pierre Lafitte junak eman zizkigun adiskidearen bizitza eta lanen xehetasunak, eta bere hildoari jarraituz eman nezazke bere berri zehatz jakingarriak.

Gaztaroan, bere lanetatik landa, laket izan zuen bidez eta xendraz oihanetan gaindi ihizan ibiltzea, bazter guzien ezagutza eginez, ohartuz bai hegaztieri, bai landare berezieneri, geroxeago euskaraz eman behar bai zaizkigun hoietaz xehetasun andana bat.

14eko gerran, 28 urte zituen eta bere adinekoekin joan beharra izan zuen gudu bortitzetarat, eta bere egintzengatik bi medailarekin itzuli zen berriz ere laborantzari oratzeko.

Uztaritz bere sorterrria biziki maite zuen eta bertako historia ondo ezagutzen zuen. Liburuxka bat ere atera zuen Uztaritze zaharrak: "Ustaritz: ses assemblées, sou tribunal". 1939an herriko auzapez, alkate, izendatu zuten eta hogeitaz urtez iraun zuen kargu horretan, 1959an berak gazteago bati utzi arte.

Euskarazko lanik sakonenak "Gure Herria" aldizkarian eman zituen, hor dira bere hitzaldi andana bat, hor Pierre Topet-Etxahun, Beñat Mardo, Elizanburu eta Goroztarzu poeteri buruzko lanak, Lapurdi zaharreko berriak, bertso zaharrak, pilotari buruzko azterketak eta hor, baita ere, Darrigol gramatikalariaren berriak. Hortik aparte, esan dugunez, "Herria" asterokoan eta "Gure Almanaka"n eman zituen anitz idazlan.

Anartean Dassance jauna ari izan zen toki-izen biltzen, dantza-jauzi zaharrak jasoaz ikertzen, eta kanta biltzen. Izan ere, "Kantu, kanta, khandore" (Baiona, 1967), P. Lafitte eta biak gertatua bai da. Eta Azkueren

"Cancionero Vasco"ren bigarren argitalpenari oharpen baliosak egin zizkion eraskiñean.

Bere euskararen aldeko ekintza, bizian zehar eten gabekoa izan zen. 1975an "Ikas" batasuna bultzatu zuen euskara eskoletan sarrarazi nahiz. Eta 1960an "Conseil de Defense du langues et cultures régionales" deritzan Parisko elkargoko buru-orde ezarri zuten. Gainera, hasera haseratik Baionako "Musée Basque" delakoa onartu eta lagundurik, haren adiskideen buru ere egon zen.

Hitz hoiekin bukatu zuen P. Lafitte jaunak bere adiarazpena: "Bainan bera nor zer zen Louis Dassance jauna? "Gizona" zela erraitea aski dela uste dugu, gizonki eraman baitu bere bizi guzia, zuhurtzia handiarekin, beti denen zerbitzuko, denekilakoa eginez, zuzenki bainan arraiki, pazientzia legetzat harturik, Jainkoa lagun: ezen fededuna zen: ez zuen bere fedez espanturik egiten, bainan ez zuen iskutatzen: laket zuen elizan ibiltzea eta aitortzen zuen euskal liturgia berriak barna hunkitzen ziola bihotza."

J. S. M.